

## **ONDAREAREN ALDE, BEHARREZKO LANBIDE BATEN ALDE**

Kultur ondarea adierazpen material nahiz immaterialen multzoa da, zeinaren bitartez giza sormenak bere kulturaren osaera erakusten duen. Hura galtzea eta narriatzea ordezkazina da: gure iragana galtzen dugu, gure memoria eta, hortaz, gizarte legez dugun transzendentzia. Ez hori bakarrik: xahutzen da baita haren errespetuzko aprobetxamenduak eragiten duen potentzial sozioekonomikoa ere.

Bat gatoz gure ondare-legatuaren garrantzia eta kultura unibertsalari eginiko ekarpen itzela balioestean. Potentzial hori gizarteak berak legitimaturik egon behar du: hark erabakiko du zer gorde behar den. Kultur Ondarearekiko ekintzen oinarrian haren balioaren aintzatespena, haren herentzia babestu beharraren onarpena daude. Bere iraganaz arduratzen den gizartea behar dugu, haren defentsan jokatu behar duen paper aktiboaren jakitun dena.

Testuinguru honetan, eta ECCOren hitzetan (European Confederation of Conservator-Restorers' Organisations): "Kontserbazio-Zaharberritze lanbidearen rol nagusia da Kultur Ondarea egungo eta etorkizuneko belaunaldien onerako babestea. Kontserbatzaile-Zaharberritzaileak lagundu egiten du Kultur Ondarea hautematen, balioztatzen eta ulertzen, haren testuingurua, garrantzia eta propietate fisikoak errespetatuz". Definizio hori berretsi egin zuten Berlingo Adierazpenean, 2015ean, ECCO osatzen duten Europako 22 herrialdeek, eta Najerako Adierazpenean jaso eta berretsi egin zen, 2017an, marko beraren baitan bilduz hala ikastetxeak nola Kontserbatzaile-Zaharberritzaile kualifikatuaren lanbidea babesten duten Espainiako elkarteak ere.

Agindu sozial hori gauzatzeko, Kontserbazio-Zaharberritzearen lanbideak Kultur Ondareak jasotzen duenaren pareko aitortpena jaso beharra dauka. Ez du ematen hasierako baldintza hori lortu denik, eta horren ondorioa dira ez bakarrik lan-baldintza jasanezinak, baizik eta, are larriago, Kultur Ondarea babesteko lan ezinbestekoan ekintza ez-desiratuak eta, batez ere, omisioak gertatzea.

Fakultate eta eskoletan gutxienez lau urtez Kontserbazio-Zaharberritzean trebatu garenok kode etiko oso zurruna betetzeko agindua daukagu, baita narriadura prozesuak ezagutu beharra ere, haiei erantzun ahal izateko kultur

ondasunen iraunkortasuna segurtatuko duten ekintza konplexuen bitartez. Jasotako trebakuntza horrek nazioarteko onespena dauka, zeinak lanbidean jarduteko prestatzen gaituen. Baina, aldi berean, ikusten ari gara ugaltzen ari direla trebakuntza-proposamen irregularrak, zeinek, antza, legitimatu egiten baitute oso espezializazio handiko lanak beharrezko trebakuntzarik ez duten pertsonen egitea.

Kalitate goreneko estandarrekin lan egin beharra daukagu, eta horrek eskatzen du lanerako sarbidea arautzea eta jasotako trebakuntza bezain zorrotzak diren proiektuak izatea. Alta, benetako merkatuan ez ditugu baldintzok sumatzen: joko-arauak zehaztu barik daude eta inbertsioak egunetik egunera txikiagoak dira. Dauden arau bakanek, esaterako Estatuaren Kontratu Legeak, sarbidea zailtzea eta horrelako lanak merkatzea dakar, ez besterik.

Egungo egoerak jarraituz gero, benetako arriskua dago lanbidean ari diren pertsonen ez ote duten emigratuko, aldekoagoak diren lekuen bila, eta ez ote dugun amaituko trebakuntza apalagoa duten profesionalak erakartzen, osasunaren sektorean gertatzen ari denaren antzera.

Muin-muinean, sumatzen dugu apenas dagoela Ondarearekiko sentsibilitaterik; horrek bete-betean kaltetzen gaitu, eta nabarmena da Kontserbazio-Zaharberrikuntza jardueretan dagoen irizpide- eta finantzazio-gabezia. Lege egokirik eta plan koherenterik ez egotea pairatzen dugu. Profesionalak falta dira babes-politikak diseinatzean, bai herri administrazioetan, bai museoetan ere. Ez dago anbiziorik ezta planifikaziorik, ez bada politikariek Kultur Ondarea gizartea batzeko edo baliabide turistikorako erabil dezaketenean.

Gizartearen aintzatespenik eza indartu egiten da, Ondare Historiko Artistikoaren kontrako delitu argiak diren esku-hartzeak zigortzen ez direnean. Ezein salaketak ez du aurrera egiten, Kontserbazioa hartzen baita estetikarekin zerikusia duen iritzi ariketa hutsa bailitzan.

**Agiri honen bitartez Espainiako gizarteari dei egiten diogu eta, bereziki, haren ordezkari politikoei eta agintariei, haien arreta osoa behar-beharrezkoa den lanbide batean jar dezaten, eta has daitezten gainditzen haien ekintza-gaitasuna zalantzan jartzen duen ziurgabetasuna. Ez dihardugu lanbide-talde baten biziraupenaz: batez ere gure Kultur**

**Ondarearen beharriaz premiaz erantzuteaz ari gara. Kultur Ondarearen Kontserbazio-Zaharberrikuntza ez da *hobby*-a, lanbidea da.**

**Gure gizartearen memoria dago jokoan.**

.-----

**Kultur Ondarearen Kontserbazio eta Zaharberrikuntzako profesionalak garen aldetik, gure ondarearen babes eta zaintzaren gaur egungo egoeraren aurrean hauxe galdegiten dugu:**

1. Berehala defini, arautu eta bateratu daitezela Kontserbatzaile-Zaharberritzailearen lanbidea, horretarako ikasketak eta titulazioa, horrela amaituko baitugu gure Kultur Ondareari hain kalte handia egiten dion intrusismoarekin.
2. Lege argiak eman eta betearaz daitezela, esparru publikoko kontserbazio eta zaharberrikuntza jarduera guztiak trebakuntza akademikoa eta beharrezko esperientzia duten Kontserbazio Zaharberrikuntzako profesionalak proiektuak, zuzendu eta gauzatu ditzaten. Obren lehiaketetan, ekidin egin behar da aurrekontuaren beharpenetatik esleitzea lanak, horrek txirotasunera kondenatzen baitu sektorea eta langileak bihurtzen baititu lan-baldintza prekarioetan diharduten profesional desplazatu eta baliabide gabekoak. Maiz, laster uzten dutenez lanbidea, galdu egiten dugu haien esperientziaren onura.
3. Sektore Publikoaren Kontratuen Legea moldatu edo egoki interpreta dadila, gure alorreko esku-hartzeek eskatzen duten bikaintasun eta berariazotasunarekin bat. Nahitaezkoa izan dadila Kontratazio Mahaietan kualifikazio egokia duten profesionalak egotea, pleguak idatz eta proiektuak baliozta ditzaten, horrela saihestuko baita gure ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea soilik irizpide ekonomikoen, Gaitasun Teknikoaren eta Kaudimen Ekonomikoaren arabera ebaztea, horiek enpresa handiak saritu eta Kultur Ondarearen Kontserbazio eta Zaharberrikuntzako enpresa txiki eta ertainak zigortu egiten baititu. Gure Kultur Ondare garrantzitsua babesteko dugula eta hurrengo belaunaldiei utziko diegula ziurtatzeko, lehia askea baldintza berdintasunean egin behar da.

4. Kultur Ondarearen kontserbazioaren alorrean beti epe luzera begira eta iraunkortasun irizpideekin lan egin dezagula, edozein esku-hartzetan beti hiru fase kontuan hartuta: lehenengoa, ikerketa eta hedapena; bigarrena, esku-hartzea bera; hirugarrena, dagokion Kultur Ondasuna mantentzea. Arau horiek betetzen direla jagoteko, administrazioak behar beste langile tekniko eskudun izan behar ditu.
5. Bereizi daitezela ondasun higiezin eta higigarrien proiektuen idazketak, baita haien egikaritzeak ere. Proiektu monumentalen kasuan, galdegin dadila monumentu horiei atxikiriko elementu artistikoak bereiztea, eta esku-hartze proiektua Kontserbazio-Zaharberritzeko profesional espezialistek egin dezatela, zeinak ekarriko baitu diziplina horretan benetan espezializaturiko pertsona edo enpresak kontratatzea.

Madriren, 2018ko maiatzaren 25ean (2018ko maiatzaren 24rako jasoriko sinadurak)

### **SUSTATZAILEAK**

IIC-ren Espainiako Taldea (International Institute of Conservation)

ACRE (Asociación de Conservadores Restauradores de España)

### **ELKARTEAK**

ACRCYL (Asociación de Conservadores Restauradores de Castilla y León)

CYRA (Asociación de Conservadores y Restauradores de Aragón)

ACREP Restauradores del Perú

APUDEPA (Acción Pública para la Defensa del Patrimonio Aragonés)

ARA (Asociación de Conservadores y Restauradores de Bienes Culturales del Principado de Asturias)

ARP (Associação Profissional de Conservadores Restauradores de Portugal)

CRAC (Associació Professional de Conservadors-Restauradors de Catalunya)

Asociación para a defensa do Patrimonio Cultural Galego

ECCO (European Confederation of Coservator-Restorers Organisations)

### **IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA ZENTROAK**

Centro de Conservación y Restauración de la Dirección Desconcertada de Cultura de Cuzco del Ministerio de Cultura del Perú

Departamento de Conservación y Restauración de Bienes Culturales, Universitat Politècnica de Valencia

ENCoRE (European Network for Conservatuion-Restoration Education)

Escuela Superior de Arte del Principado de Asturias

Escuela Superior de Conservación y Restauración de Bienes Culturales, Madril

Escuela Superior de Conservación y Restauración de Bienes Culturales de Aragón

Escola Superior de Conservació i Restauració de Béns Culturals de Catalunya

Escola Superior de Conservación e Restauración de Bens Culturais de Galicia

Facultad de Bellas Artes, Universidad de Sevilla

Kultur Ondasunen Kontserbazio eta Zaharberrikuntza Gradua, Euskal Herriko Unibertsitatea

Instituto Universitario de Restauración del Patrimonio (IRP), Universitat Politècnica de Valencia (UPV)

Instituto Valenciano de Conservación, Restauración e investigación IVCR + i

Master de Diagnóstico de Estado de Conservación de Patrimonio Histórico, Universidad Pablo de Olavide (UPO), Sevilla

Projecto Patrimoni – PEU. Universitat Jaume I

Kontserbazio-Zaharberrikuntza atala, Arts i Conservació-Restauració Departamentua, Universitat de Barcelona.

## **ENPRESAK**

...

(Eta 1.100 sinadura baino gehiago: Kontserbazio eta Zaharberrikuntzako nahiz horiei loturiko beste lanbide batzuetako profesionalenak, eta Kultur Ondareaz arduratutako herritarrenak).

Sinadura bilketa irekita dago, GEIC eta ACREren webetan.